

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Facultad de Medicina y Enfermería  
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

**MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA**  
**FAKULTATEA**  
**UPV/EHU**

***Ebaluazio Kliniko Objektibo eta Egituratua (EKOE)***

***MEDIKUNTZAKO GRADUA***

***2017***

***IKASLEAREN ESKULIBURUA***

**Ebaluazio Kliniko Objektibo eta Egituratuaren (EKOE)**  
**Antolakuntza Azpibatzerdea**

**MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA**

# **EBALUAZIO KLINIKO OBJEKTIBO ETA EGITURATUA** **(EKOE)**

## **Sarrera**

Zalantzarik gabe, Hardenek egin zuen urratsa –ebaluazio kliniko egituratua sortzea– funtsezkoa izan zen objektibotasuna handitzeko gaitasun eta balorazio klinikoak ebaluatzeko azterketetan. Azterketa mota honek harrera gero eta handiagoa izan du, eta ohikoa bihurtu da fakultate askotan. Estatu Batuetan, 90eko hamarkadaren hasieran, medikuntza fakultateen herenek ebaluazio kliniko egituratuak erabiltzen zituzten, paziente simulatuekin edo gabe.

**Ebaluazio Kliniko Objektibo eta Egituratua (EKOE)** ebaluazio tresnak konbinatzen dituen azterketa formatu bat da, eta egoera klinikoak simulatzen dituzten hainbat etapa ditu. Formatu honen indargunea ebaluazio metodoak nahastean datza, eta kapaz da horri esker Millerren piramidearen lau mailtako hiru esploratzeko gutxieneko sakontasunez: jakitea, jakitea nola, eta demostratzea nola.

Medikuntza Fakultateetako Dekanoen Konferentzia Nazionala (CNDFM) lanean ari da azterketa mota hau Medikuntzako Graduetan sartzeko, estatuko unibertsitate publikoetako fakultate guztietan. Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Medikuntza Fakultatea izan zen lehena ebaluazio mota hau erabiltzen. 2006. urtean izan zen. Berehala, Kataluniako unibertsitateek jarraitu zioten. Aurten (2016), medikuntza fakultate guztiek egingo dute ebaluazio hau, eta CNDFM arduratuko da akreditazioaz, kanpoko behatzaileen bidez, beste medikuntza fakultate batzuetako irakasleak direnak.

**EKOE hau nahitaez egin beharrekoa da**, eta ikasketa planean jasota dago, Medikuntzako Gradurako III MECES mailaren aitopeneri lotua. Aitopeneri horri esker, ikasleak Gradu eta Master titulazio bikoitzarekin irteten dira, eta doktorego programetan eta ikerketa lanetan berehala hasteko aukera ematen die horrek.

Beraz, ikasturte honetako eskolaldia amaitzean, **GAITASUN KLINIKOA EBALUATZEKO PROBA** egin beharko duzue, **EKOE** laburduraz ezagutzen dena. Proba egiteko, **etapa anitzeko** formatua erabiliko da. Horrenbestez, dokumentu honen eginkizun nagusia da proba horren ezaugarriak azaltzea.

## ***Kontzeptu esparrua***

Azterketa formatu honek trebetasunak eta jarrerak ebaluatzen ditu, egoera kliniko jakin batzuetan, ezagutzak nagusiki ebaluatzen dituzten ohiko idatzizko azterketek ez bezala. Oro har, gaitasun klinikoa ebaluatzea hauxe da: **era objektiboan neurtzea informazio teorikoa baduzuen eta arrazoiz jokatzeko badakizuen.**

**Gaitasun klinikoa**, beraz, behaketa errazteko bereizi egin diren koalitete eta atributu batzuen bategitearen emaitza da. Atributu horiei **gaitasun osagaiak** deitzen diegu, edo **gaitasunak**, besterik gabe. Medikutza Fakultateetako Dekanoen Konferentzia Nazionalak (CNDFM) onartu dituen gaitasun osagaiak honako hauek dira:

1. Anamnesia
2. Miaketa fisikoa
3. Mediku/paziente komunikazioa
4. Txosten klinikoak egitea
5. Balorazio klinikoa
6. Trebetasun teknikoak
7. Prebentzio jarduerak
8. Etikari eta legeari lotutako alderdiak

Gaitasun klinikoa neurtzeko erabiltzen den ebaluazio formatua hauxe da: **Ebaluazio Kliniko Objektibo eta Egituratua (EKOE)**. Ebaluazio horren bidez, gradu aurreko aldiaren oinarritzko gaitasunak eskuratu dituzuen ebaluatzen da.

Ebaluazioa, **praktikan oinarritua**, behaketaren bidez egiten da, eta **egoera kliniko simulatu** batzuetan duzuen jokaerari (zer egiten duzuen) erreparatzen zaio. Egoera klinikoak leku fisiko batzuetan simulatzen dira, eta **etapak** deitzen diegu. Kasu honetan, **20 etapa** izango dira.

20 etapek osatutako ibilbidean (**zirkuitua** esaten zaio), ikasle bakoitzaren gaitasun osoa baloratzen da. Etapa bakoitza film baten fotograma bat bezalakoa da, bereiz hartutako gaitasunaren argazki finko bat bezalakoa. Etapa guztietan barrena eginiko ibilbidean lortzen den fotograma segidarekin, **ebalatu nahi dugun gaitasun klinikoaren** "mugimenduzko filma" lortzen da. Etapa bakar batek ez digu nahikoa sentikortasun eta espezifikotasunik ematen ikaslearen gaitasunaren balorazioa egiteko, eta 20 etapen multzo osoa behar dugu ebaluazio honetarako behar diren sentikortasuna eta espezifikotasuna lortzeko.

Etapa bakoitzak gaitasun osagai multzo bat baloratzen du, **tresna** espezifikoa batzuk erabilita osagai bakoitzerako. Tresna horiek zeintzuk diren aurrerago azalduko dugu.

## **EKOE PROBAREN ETAPAK**

Dagoneko esan dugunez, proba honen egitekoa ez da ezagutza biomedikoak neurtzea, zuen praktika klinikoaren kalitatea baloratzea baizik. Hori horrela, **aurre egin beharko diozue** proba honetarako aukeratu diren **kasu klinikoen multzoari**.

Etapak bakoitzean, zeregin jakin bat planteatzen zaio mediku/ikasleari (aurre egitea kasu bati edo historia kliniko bati, miaketa trebetasun bat erakustea, erradiografia batzuk interpretatzea, etab.).

Mediku/ikaslea etapa batetik bestera doa, etapa bakoitza leku jakin batean izanik, eta horietako bakoitzean, irakasle batek ikaslearen balorazioa egiten du. Etapa bateko lana edo denbora amaitzean, mediku/ikaslea hurrengo etapara igarotzen da, eta, horrela, hurrenez hurren, 20 etapetatik igaro arte.

EKOEn antolakuntza azpibatzerdeak zehatz-mehatz ezartzen ditu ikaslearen errendimendua baloratzeko irizpideak, eta puntuazio orriak eta kalifikazio inprimakiak prestatzen ditu aztertzaile/behartzailearentzat. Ikasleak denbora tarte labur bat du (8 minutu) etapa bakoitzeko lana egiteko. Etapa/kasu multzo osoaren bidez, gaitasun hauek baloratzen dira:

1. Anamnesia
2. Miaketa fisikoa
3. Mediku/paziente komunikazioa
4. Txosten klinikoak egitea
5. Balorazio klinikoak
6. Trebetasun teknikoak
7. Prebentzio jarduerak
8. Etikari eta legeari lotutako alderdiak

Gaitasun hauek Klinika Medikoan gutxi-asko zeharkakoak direnez, esan daiteke haien ebaluazioa **nahikoa independentea dela** etapa/kasuari dagokion **patologia mota, espezialitate mediko, sail** edo **irakasgaiari** dagokienez. Gainera, etapa bakar bateko lana ondo ez egiteak, zeinahi ere den arrazoia, oso eragin txikia du 20 etapak osatzen duten EKOE globalaren ebaluazioan.

Kontuan izan behar duzue **gaitasun hauek ebaluatu egin daitezkeela etapa batean edo gehiagotan, eta ikasleak ez dakiela zer pisu duten gaitasun osagaiek etapa bakoitzean**. Horregatik, azterketa hauetan esperientzia handiagoa duten medikuntza fakultateetan, **azterketa egin duten ikasleei gomendatzen zaie ez hitz egiteko probaz oraindik hura egin ez duten ikaskideekin**, asmoak eta jarrerak baldintzatu ditzaketelako, eta faltsutu egin daitezkeelako ikasleak egoera klinikoei ekuanimitatez aurre egiteko duen gaitasuna. Izan ere, jakina da EKOEn emaitzak zertxobait apalagoak direla bigarren egunetik aurrera egiten diren saioetan. **Horregatik, ausaz aukeratu da proba egiteko ordena.**

## **Ebaluazio tresnak**

Gaitasunak neurtzeko, hainbat ebaluazio tresna konbinatzen dira:

- 1. Paziente estandarizatu edo simulatuak**
- 2. Txosten klinikoak**
- 3. Manikiak**
- 4. Erantzun laburreko galdera irekiak**
- 5. Irudi klinikoak**
- 6. Ahozko azterketa egituratua**

### **1. PAZIENTE ESTANDARIZATUAK**

Etaparen gehienak paziente estandarizatu edo simulatuetan oinarritzen dira. Arazo klinikoak simulatzeko entrenamendu egokia jaso duten pertsonak dira –antzezleak, kasu askotan–, arazoak modu guztiz egituratu eta errealistan antzetzten dituztenak. Sintomak nola azaldu erakusten zaie, nola simulatu defizitak, nola adierazi mina modu estandarizatu batean (modu berean beti), lagunarteko hizkera erabilita, ebaluatzen ari den mediku/ikasleak egiten dizkien galderei zehazki erantzuten. **Egiazko paziente bat artatuko zenuketen modu berean** artatu behar dituzue.

Paziente estandarizatua duten etapa guztietan, **anamnesia** eta **miaketa fisikoa** egiteko gaitasuna ez ezik, **komunikazio trebetasunak** eta pazientearen edo kasuaren **maneu eta deribazio planen** proposamena ere ebaluatzen dira.

### **2. TXOSTEN KLINIKOAK**

Paziente estandarizatuarekin aritzean, garrantzitsua da kasuari buruzko oharrak idaztea, batzuetan txosten kliniko bat egitea eskatuko zaizuelako harekin egon ostean. Komeni da idatziko dituzuen oharrak ahalik eta zehatzenak izatea. Komeni zaizue, halaber, **letra argiz** idaztea, eta **ez erabiltzea laburtzapen ez konbentzionalik**. Gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea oso deskriptiboak izan behar duzuela laborategiko prozedura diagnostikoetan, eta **ez direla onartzen erreferentzia orokorregiak**, hala nola “analitika orokorra” edo “analisia”; aitzitik, “hemograma eta biokimika” jaso behar duzue gutxienez, eta kasu esanguratsuetan, **proba biokimiko zehatzak** ere eskatzen dira. Ez dira onartzen ere oso generikoak diren esapideak, hala nola “azterketa erradiologikoa”, informazio gehiago eman gabe. Miaketa fisikoan, ez dira onartzen esapide orokorregiak (“hondar normala” edo “bihotz-arnasetako aparatua: normala”, azalpen gehiago ematen ez bada. “Normala” esapidea onar daiteke baldin eta aparatu hori ez bada hain garrantzitsua aztergai den kasuan.

### **3. MANIKIAK**

Beste kasu batzuetan, manikiak erabiltzen dira, eta premiazko arretan (bihotz-biriketako bizkortzea, intubazioa, ziztadak, etab.) garrantzitsuak diren **teknika psikomotorretan** duzuen **trebetasuna** ebaluatzen da. Etapa hauetan, *behatzaile* batek adieraziko dizue zer espero den zuengandik, eta behatzaile horien jarrerak ere guztiz egituratuta daude, inpartzialtasunez jokatzeko ebaluazioan.

### **4. ERANTZUN LABURREKO GALDERA IREKIAK**

Erantzun laburreko galdera irekien bidez (azterketa tradizionalaren antz handiagoa dutenak), ikaslearen ezagutzak aztertzeko dira, eta modu egokian egituratuak, gaitasun batzuk ebaluatzeko ere balio dezakete: problemak hierarkizatzeko gaitasuna, miaketak antolatu eta planifikatzekoa, erabakiak hartzekoa, etab. Hau da, ezagutza teoriko hutsa neurtu daiteke, baina baita haren aplikazio praktikoa ere.

### **5. IRUDI KLINIKOAK**

Irudi klinikoek irudi erradiologikoak, elektrokardiografikoak... erakusten dituzte, argazkian, gardenkian edo bideoan. Horien diagnostikoa egin behar duzue. Proba honetarako, irudi edo miaketa osagarri tipikoak aukeratuko dira, eta galdera batzuk egingo zaizkizue, zeriak dutenak oso ohikoak edo esanguratsuak diren kasuen diagnostiko eta maneiuarekin. Irudi klinikoen etapak independenteak izan daitezke, edo lotura izan dezakete aurretik baloratu den eta paziente estandarizatua erabiltzen duen beste etapa batekin.

### **6. AHOZKO AZTERKETA EGITURATUA (AAE)**

Ezagutzak, maneiu planak, arazoak hierarkizatzeko gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna eta miaketen antolamendu-planifikazioa ebaluatzeko helburua du. Etapa jakin bateko behatzaileak galdera sail bat egiten du, eta labor erantzun behar zaie.

Erantzun posibleak argi definituta daude kasu bakoitzaren diseinuan, behatzailearen balorazioa arbitrarioa izatea eragozten duten irizpideen bidez.

## ***Probaren egitura***

**Etapak** dira proba honen egituraren elementu nagusiak, eta ikaslea ebaluatzeko erabiltzen diren leku fisikoak dira. Etapa bakoitzean, ebaluazio tresna bat edo gehiago aurkituko dituzue (aurretik aipatu ditugunak). Beraz, etapa anitzeko proba bat da; hots, ikasleak etapa (bulegoak eta aulkiak) multzo batetik igarotzen dira, eta kasu klinikoak planteatzen zaizkie horietan guztietan. 20 etapak osatutako multzoari **zirkuitua** deitzen zaio. Bai eguna bai proba egiteko ordena ausaz aukeratuko dira, bere garaian zehaztuko den moduan.

Etapa bakoitzean (bulegoa edo aulkia), **abiaburuko egoera** izeneko orri bat aurkituko duzue, aztertu behar duzuen kasuari buruzko oinarriko informazioarekin eta egin beharreko zereginekin. Garrantzitsua da **arretaz irakurtzea** abiaburuko egoera bakoitza, lana optimizatzeko.

Paziente estandarizatua duten etapetan, **ezin** izango da aparatu genitala eta uzkia miatu, eta kasuak miaketa horiek egitea eskatzen duenean, maniki bat erabiliko da.

Probak **20 etapako** zirkuitu bat izango du, eta etapa bakoitzak **8 minutu** iraungo du. Etapatik irteteko **3 minutu** falta direnean, megafoniaz abisatuko zaizue. Etapa bateko denbora amaitzean (8 minutu), ezingo zarete denbora gehiago gelditu, eta hurrengo etapara igaroko zarete. Etapa batean egin beharreko lana 8 minutuak igaro aurretik amaitzen duzuenean, zain geldituko zarete, behatzailearekin eta pazientearekin hitz egin gabe. Etapa baten eta hurrengoaren artean (hots, etapaz aldatzeko), **2 minutu** izango dituzue. Hurrengo etapako abiaburuko egoera irakurtzeko erabil ditzakezue. Guztira, probak edo zirkuituak 200 minutuko iraupena izango du, gutxi gorabehera (3 ordu eta 20 minutu).

Azterketa puntual hasiko da, deialdian adieraziko den goizeko eta arratsaldeko ordutegiaz. Proban, atsedenaldea izango duzue. **Proba hasi baino 40 minutu aurretik** deituko zaizue, **azken azalpen eta antolakuntza xehetasunak jasotzeko.**

## **Azken aholkuak**

- **Garaiz iritsi, deialdian ezarritako orduan** (40 minutu lehenago gutxienez EKOE ebaluazioa hasi aurretik).
- Ez ahaztu **mantala, fonendoskopioa** eta **boligrafoa** (gainerako material klinikoa azterketan emango zaizue).
- Oso garrantzitsua da egiazko praktika klinikoan jokatu zenuketen modu berean jokatea.
- Gogoratu: etapa bakoitzean (bulegoa edo aulkia), egin beharreko lan espezifikoa azaltzen dituen orria aurkituko duzue, **abiaburuko egoera** izenekoa. Beraz, komeni da lan horiek arreta handiz egitea.
- Manikiak dituzten etapetan, **behatzaileak** egongo dira, egoki trebatuak rol guztiz objektibo, inpartzial eta bidezko bat betetzeko. Hortaz, ez dute inolako interferentziarik eragingo zuen lanean.
- Aztertu behar dituzuen egoera klinikoek ez dute inolako tranparik. Praktika klinikoaren paziente paradigmakoak erabiltzeko ahalegina egiten da.
- Ezin da **informazioa trukatu kideen artean**. Esperientziak erakusten duenez, kide bati probaren edukiei buruzko informazioa emateak ez du ezertan laguntzen. Are gehiago, kasu batzuetan, emaitza okerragoak izaten dira.
- Proban zehar arazoren bat sortzen bazaizue, jo ezazue antolakuntza taldeko kideengana (behar bezala identifikatuta egongo dira).
- Ezin da komunikazio tresnarik ekarri: telefono mugikorrak, tabletak eta bestelako tresna elektronikoak.